

Saddam Husseinek ezin izan zituen gauzatu Israeli eginiko mehatxuak

Palestina,
krisialdiaren
beste ardatza

LUIS FERNANDEZ / DONOSTIA

Kuwait inbaditu eta hamar egun beranduago, abuztuak 12, Saddam Hussein lehendakari irakiarrek bere «bake proposamena» luzatu zion munduari: Ekialde Erdiko arazo guztiak osotasunean tratatu behar direla, bai Kuwaitena, eta baita Palestina eta Libanokoa ere. Mendebaldeak eta Estatu Batuen aliatuek berehala ezezkoa eman zuten eta tinko eutsi diote ezetzari ordudanik.

Lehen unetik, Palestinaren Askatasunerako Erakundea (PAE) Iraken jarreraren alde agertu izan da. Iasser Arafat lider palestinarra Bagdaden izan da behin eta gehiagotan. Palestinaren auzia konpontzeko unea hau izan zitekeelakoan, saio diplomatiko etengabeak egin ditu.

Arazo palestinarra, konpondu beharrean, larritu egin da azken hilabeteetan. Batez ere, urriak 8, Jerusalem-eko meskiten eremuan izandako sarraskiaren ondoren. Soldadu israeliarrek 21 palestinar hil zituzten orduko hartan.

Harrezkero, Intifada, harrien errebolta, labainen errebolta bilakatu zen, eta labainez hogeit bat eraso egin dituzte israeliarren kontra. Honek, jakina, errepresioa areagotu egin du, eta bereziki larria izan zen 1990eko azken asteburuan, Al Fatah mugimenduaren sorreraren 25. urtemugan.

Nazio Batuetan (NBE), bitartean, Estatu Ez Alineatuak behin eta berriro saiatu ziren Palestinari buruzko Nazioarteko Bake Konferentzia bat eskatzen, baina EEBBk oztopatu zuen proiektua. Azkenean, abenduan, Konferentzia «une egokian» konbokatzeko «borondatea» aipatu zen Segurtasun Kontseiluko erabaki batean. Israelen errepresioa ere salatu zen testuan, baina presio biderik zehaztu gabe.

Aurretik, Javier Perez de Cuellar NBeko idazkari nagusiak, informe pertsonal batean bada ere, aipatu zuen Palestinaren gaia, Jerusaleme-ko sarraskia izan eta egun gutxira. Perez de Cuellarrek esan zuenez, «arazoarentzako konponbide erreal bakarra herri palestinarren autodeterminazio askea da».



Judu ortodoxoak dantzan eta otoi egiten Auhon Harresiaren ondoan, Jerusalem, gerra hasi eta gutxira.

AP

✓ Poz handiaz eta gerrarako prest hartu dituzte israeliarrek Iraken aurkako erasoaren lehenbiziko ondorioak.

ditzea da komenigarriena israeliar agintarien arabera.

SHAMIR-EK ALDEZ AURRETIK ZEKIEN

Iraken aurkako eraso hasi baino ordubete lehenago abisatu zuen Pentagonoak Yitzhak Shamir Israeleko lehen ministroa, bertako Estatu Irratiak atzo

azaldu zuenez. Israeliar general nagusiek Tel Aviv-en bilduta eman zuten atzoko egun osoa. Airezko Indarrak eta Hiritar Babesak alarma handien egoeran iraun zuten egun osoz.

Funtsezko industrietako eta koartelatatik kanpo zeuden erreserbistak oro mobilizatu dituzte Indar Arma-

tuek. Honez gain, polizia, suhiltzaile zerbitzua eta gainerako ekonomi baliabideak ere kontrolatuko ditu armadak.

Israeleko gobernuak, prentsak eta populazioak berak poz handiz hartu zuen Irakek kontrako erasoaren albisteak. Israelek ez zuela gerran partetik hartuko adierazi zuen Davis Levi bertako kanpo arazoetarako ministroak.

Ariel Shoval Estatu Batuetako israeliar enbaxadoreak, bestetik, Israelen eta EEBBen arteko kordinaketa iragarri zuen baina hau zertan den zehaztu gabe.

Eraso «iparramerikar-europar-sionistari» aurre egiteko deia palestinarren artean

TUNISIA

Iraken aurkako «eraso iparramerikar-europar-sionistari» aurre egiteko deialdia egin zien Palestinaren Askatasunerako Erakundeak (PAE) arabek, musulman eta «bakea nahai duten indar guztiei», EEBBen lehen hegazkinek Iraken kontrako eraso egin eta berehala.

«Egun beltza da gaurkoa munduaren historian» adierazi zuen PAEko burua, anaiaren eta nazio arabiarren aurkako erasoari aurre egitera ukatzen direnak ez ditu Historiak barkatuko. Horregatik berriro ere nazio arabiarreko agintari guztiak deitzen

ditugu, batasun iparramerikar-europar-sionistaren erasoari aurre egiteko».

Palestinaren Askatasunerako Erakundeak dioenez, EEBBk eta bere aliatu sionista eta europearrek alde aurretik baztertu zuten gatazkaren konponbide baketsua, Bushek erabakita bait zeukan erasotzea eta orain dela hiru aste prestatuta urtarilaren 17an telebistaz irakurritako diskurtsoa.

«Iraken aurkako eraso traidore eta injustoa da» aldarrikatu du Palestinaren Askatasunerako Erakundeak. «Estatu Batuek nazioarteko legea defendatzen dihardutela esaten dutelarik, Israelek mugagabeko babesa dauka gure haur, gure emazte

eta gure lurralde sakratuaren kontrako krimenekin jarraitzeko».

GERRA SANTURAKO DEIALDIA

Gazzah eta Zisjordaniako lurralde okupatueta etxeraldi deiari (couvre feu / toque de queda) jaramonik egiten ez diotenek heriotz arriskua dutela, abisatu dute Israeleko agintari militarrek.

Lurralde okupatueta milioi bat eta zazpirehun mila lagunentzat luzatu dute etxeraldi deia, baita Jerusalem hiriko Siluan eta Shuafat auzoetakoentzat ere, bertan manifestari palestinarrek «gerra santu deialdia» egin bait dute EEBBen eta Israelen aurka.



Etxeraldi deia betetzen ez dutenentzat, neurri gogorak iragarri ditu Israel.